

Euskal AEko migrazio-saldo positiboa 3.500 pertsonatik gorakoa izan da 2021ean

Immigrazioek % 11,9 egin dute gora eta emigrazioek % 16,7 2020arekin alderatuta

2021ean 39.427 immigrazio izan ziren eta 2020an 35.221; datuaren arabera, beraz, % 11,9 igo ziren. Bestalde, emigrazio-kopuruak ere gora egin du, 2020an 30.709 emigrazio izan baitziren eta 2021ean 35.839, eta igoera, beraz, % 16,7koa izan da, migrazio-saldoa 3.588 pertsonakoa izanik, Eustatek landutako datuen arabera. Emigrazioetan izandako igoera horren ondorioz, migrazio-saldoa aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da, 924 pertsona gutxiago, nahiz eta immigrazioek gora egin.

Migrazio-mugimenduak eta saldoak Euskal AEn. 1998-2021

	Immigrazioak		Emigrazioak		Migrazio saldoa
	Gutxira	Aldakuntza-indizea (1988 = 100)	Gutxira	Aldakuntza-indizea (1988 = 100)	Gutxira
1988	8.014	100	18.103	100	-10.089
1992	9.006	112	13.668	76	-4.662
1995	11.316	141	16.130	89	-4.814
1999	16.103	201	17.291	96	-1.188
2000	20.022	250	17.462	96	3.903
2001	25.775	322	18.696	103	7.861
2002	25.967	324	19.730	109	6.082
2003	28.467	355	22.216	123	4.864
2004	30.328	378	21.304	118	8.116
2005	33.993	424	20.672	114	12.256
2006	37.147	464	22.689	125	11.827
2007	41.361	516	23.669	131	16.835
2008	44.630	557	29.941	165	14.689
2009	38.368	479	31.815	176	6.553
2010	38.591	482	33.425	185	5.166
2011	41.011	512	32.819	181	8.192
2012	34.362	429	34.589	191	-227
2013	33.987	424	35.943	199	-1.956
2014	35.491	443	31.889	176	3.602
2015	35.917	448	32.555	180	3.362
2016	40.126	501	31.255	173	8.871
2017	41.861	522	31.136	172	10.725
2018	46.982	586	32.258	178	14.724
2019	52.306	653	32.838	181	19.468
2020	35.221	439	30.709	170	4.512
2021	39.427	492	35.839	198	3.588

Data 2022ko Abuztuaren 10a

Iturria: Eustat. Migrazio Mugimenduen Estatistika

Migrazio-saldoak bi aldi ezberdin izan ditu 2021ean: urtariletik ekainera 2.496 pertsonako saldo negatiboa izan zuen eta urtearen bigarren zatian 6.084 pertsonako saldo positiboa.


Lurraldez lurralde, Bizkaiak 1.465 pertsona gehiago izan zituen, eta kopuru absolutuetan migrazio-saldo altuena izan zuen; Arabak 1.179 pertsonako saldo positiboa izan zuen eta Gipuzkoak 944 pertsonako saldo positiboa. Ehunekoetan, Araban bakarrik egin du gora aurreko urtearekin alderatuta, % 85,7, hain zuzen ere, eta Bizkaian % 12,1 jaitsi da eta Gipuzkoan % 57,3. Hiriburuak kontuan hartuz gero, migrazio-saldoak positiboak dira bai Donostian bai Gasteizen, hain zuzen ere, 665 eta 852 pertsonakoak, hurrenez hurren. Bilbok 35 pertsonako saldo negatiboa du.

Euskal AEren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko mugimenduei dagokienez, 2021ean 573 pertsonako saldo negatiboa izan zen, eta zertxobait leheneratu zen aurreko urteko datuarekin alderatuta, 733 pertsonako saldo negatiboa izan baitzuen. Bestalde, atzerriko herrialdeekiko saldoa positiboa izan zen arren (4.161 pertsona), 2020koa baino baxuagoa izan zen (5.245 pertsona).

Kanpoko mugikortasun-tasak nahiko baxua izaten jarraitzen du

Kanpoko edo erkidegoz kanpoko mugikortasun geografikoak 2021ean Euskal AEko 1.000 biztanletik 34,3ri eragin die, hau da, aurreko urtekoa baino 4 puntu handiagoa izan da, baina autonomia-erkidegoetakoa baino 6 puntu txikiagoa; izan ere, 1.000 biztanletik 40,4 mugitu ziren batez beste. Lurraldez lurralde, Araban % 39,3 izan zen, Bizkaian % 33,4 eta Gipuzkoan % 33,5.

Euskal AEko emigrazioak, erkidegoen arabera, nondik-nora



Iturria: Eustat. Migrazio-mugimenduen estatistika

Euskal AEren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko migrazio-mugimenduak kontuan hartuta, Euskal AEk horietako 6rekin migrazio-saldo positiboa izan zuen, eta gainerako 11kin saldo negatiboa. 2021ean -1.206 pertsonako saldo negatiboa izan ziren eta aurreko urtean saldo negatiboak -2.600 pertsonakoak izan ziren.

Euskal AEko joale gehien erakarri zuten autonomia-erkidegoak hauek izan ziren, eta hurrenkera horretan: Gaztela eta Leon, Madril, Kantabria eta Katalunia. Lau autonomia-erkidego horiek jaso zituzten gure autonomia-erkidegoa beste batzuetara joateko utzi zuten pertsonen % 50.

Autonomia-erkidego horiek izan ziren immigrante gehien ekarri zutenak ere, honako beheranzko hurrenkera: Madril, Gaztela eta Leon, Kantabria eta Katalunia. Lau autonomia-erkidego horietatik etorri ziren Estatutik iritsitako immigrante guztien % 49.

Andaluzia da saldo positibo altuena ekarri duen autonomia-erkidegoa (281 pertsonakoa), eta Kantabria saldo negatiboena duena, -348 pertsonakoa.

Emigratzaileen batez besteko adina, 37,7 urte, handiagoa izan zen emigratzaileena baino (34,1 urte). 20-39 urte bitarteko pertsonen % 48 egin zituzten, eta emigrazioen % 46.

Sexuari dagokionez, ehunekoak bere horretan mantentzen dira: emigratzaileen % 53 gizonezkoak dira eta % 47 emakumezkoak; eta emigratzaileen kasuan egoera antzekoa da: % 54 gizonezkoak dira eta % 46 emakumezkoak.

Immigratzaileen % 58 eta emigratzaileen % 45 atzerritarrak

Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen immigrazioak 22.721 izan ziren 2021ean. Haietatik 6.408 beste autonomia-erkidego batzuetatik etorri ziren, batez ere Madriletik, Kataluniatik eta Andaluziatik, eta 16.363 zuzenean atzerritik.

Bestalde, atzerritarren emigrazioak 16.167 izan ziren, guztien % 45, eta % 72 atzerriko herrialderen batera joan ziren. Horrela, atzerritarren saldoa positiboa izan zen: 6.604 pertsona.

Euskal AEko biztanleak etxetik aldatzen direnean, % 67tan erkidegoan bertan geratzen dira

Euskal AEko biztanleriaren % 10,5ek bizileku-aldaketaren bat egin zuen 2021ean. Ohiko bizileku-aldaketa horien % 67 autonomia-erkidegoan bertan egin ziren eta gainerakoak autonomia-erkidegotik kanpora.

Euskal AEn ohiko bizileku aldaketak 229.926 izan ziren guztira. Horietatik 99.981 udalerri berean egindako bizileku-aldaketak izan ziren. Autonomia-erkidego barruko mugimendua, hau da, jatorria eta helmuga Euskal AEko udalerriak dituenak, 54.679koa izan zen.

Era berean, kanpoko edo erkidegoz kanpoko immigrazioak, hau da, jatorria autonomia-erkidegotik kanpora duten eta helmuga Euskal AE duten immigrazioak 39.427 izan ziren; horietatik 19.615 atzerritik iritsi ziren. Hori % 15,8ko igoera da 2020ko zifrekin alderatuta.

Azkenik, kanpoko edo erkidegoz kanpoko emigrazioak, hau da, autonomia-erkidegoko udalerri batetik autonomia-erkidegotik kanpora izandako bizileku-aldaketak, 35.839 izan ziren; eta horietatik % 43k (15.454) atzerria izan zuten helmuga.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62